

SORKUNTZA PROZESUAK MAILA KOLEKTIBOAN

Irakaslea: Enric Ases

Urriak 22, 23 eta 24 | 10:30etik 14:30era · 16:00etatik 18:00etara

18 orduko ikastaroa Lekuonan, Erreterian.

Sortzaile eszenikoei, aktoreei, dantzari, zirkoko artistei, *performerei*, antzerkigileei, eszena-zuzendariei, irakasleei, eta esperientzia profesionala duten edo ez duten ikasleei zuzendua.

Ikastaroari buruz

Ikastaro honen helburua maila kolektiboko sorkuntza-lan bat antolatzeko jarraibideak, protokoloak eta moduak azaltzea da, sorkuntza-lan hori malgua eta zehatza izan dadin. Aldi berean, ikastaroaren faseak analitikoki sistematizatu nahi dira, prozesuan parte hartzen duen bakoitzak bere alderdirik egiazkoena adieraz dezan, eta, horretarako, sormenezko katarsia, metodoa eta zorrozatasuna uztartuko dira.

Lan-metodo honetan, bestearenganako eskuzabaltasun-, arreta- eta errespetu-dosi handiak behar dira, eta den-denek beren talentua proiektu komunaren mesedetan ardaztu beharko dute. [Argibide gehiago](#).

Enric Ases



Aktorea, zuzendaria eta antzerki-egilea, hainbat konpainiatan lan egiten du, hala nola La Fura dels Baus, Tricycle, Teatre de Guerrilla, Malpelo edo Lali Aiguade.

Hainbat talde enblematikoren kide eta sortzaileetako bat izan da, hala nola Zotal Teatre, Los Los eta Los Dos Los, eta bere ibilbidean zehar sari garrantzitsuak jaso ditu, besteak beste: Bartzelonako Kritika (1992-2018), FETEN Saria (2019) Zuzendaritza Onenari, BBVA Saria (2019)

Antzerkian, zenbait FAD Sari (1992-1998-2018) eta familientzako ikuskizun onenaren Max Saria (2021).

Liburu honen egilea da: "Creación escénica en equipo. El círculo animado", eta azken urteotan talde artistikoei laguntza, zuzendaritza eta aholkularitza ematen espezializatu da, eta antzerki, dantza eta zirku ikuskizun ugaritan parte hartu du. Gaur egun, "Sormen prozesuak maila kolektiboan" izeneko ikastaroa ematen ari da Europa osoan zehar, bai eta beste hainbat ikastaro ere Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolan, Bartzelonako Institut del Teatren. [Argibide gehiago](#).